

Nire aitonari,
in memoriam:
istorio honen hasiera

MUSAKOLAKO KIROLDEGIA: ORUBEA

Hau izango litzateke Musakolako kiroldegi berriak okupatuko lukeen orubea. **Sotoa.**




Mantenua: igerilekuko makineria-gela (galdarak, filtroak, aireztapen sistema...), tailerra, material biltegia, bulegoa eta bilera gela, garbiketa gela.

MUSAKOLAKO KIROLDEGIA: ORUBEA

Hau izango litzateke kiroldegi berriak okupatuko lukeen orubea. **Beheko solairua I.**
 Gaur egungo tenis-padel pistak eta harrera ondoko estalitako pista mantendu egiten dira.
 Teilatuko xaflaren bat aldatu behar bada, berritu egiten da, baina egitura mantendu egiten da.
 Spinning gelako paretatan holtz tolesgarriak jartzen dira paretatan negurako.


Mojategi, dagoenetan. Harmailetako sabaia luzatu beharra, euria egiten duenean 1. ilarako ikusleak busti ez daitezten.








- Igo gailuak
- Eskailerak
- Komunak
- Harmaila skate-park
- Harmaila tenis

MUSAKOLAKO KIROLDEGIA: ORUBEA

Hau izango litzateke kiroldegi berriak okupatuko lukeen orubea. **Sabaia eta 2. solairua eraikin administratiboan** (areto nagusia; gehienezko edukiera 130-140 ikusle-entzule).



Administrazioa

- | | | | |
|---|------------|---|----------------------------------|
|  | Igogailuak |  | Vending-eko makinak |
|  | Eskailerak |  | Hizlarietzako mahaia eta aulkiak |
|  | Komunak | | |

MUSAKOLAKO KIROLDEGIA: ANTOÑA BERRIA

Hau izango litzateke Antoña berriko eraikinaren banaketa. Lehenbizi pareten hezetasuna tratatu beharra dago. Aireztapen-sistema ere berritu beharra dago. Honako moldaketak:



Lorategiaren apainketa




Frontoien aurreko estalkia, leihoak eta atea berritzea



Antoñako aurreko estalki hau hormigoiez estaltzen da. Bertan kanpoko rokodromoa eraikitzen da.



Antoñako eskumako alboko estalkia beirateagatik ordezkatzten da.



Garbitzaileentzako gelatxo berriaren kokapena



Komunen berritzea


◆ Larrialdietarako interfonoa, 4: Antoñako solairu bakoitzeko 1 eta frontoi ondoko iturriaren alboan 4.a. Interfonoa soroslearen haririk gabeko telefonoarekin konektatuta dago. Ideia honek igerilekuak arautzen dituen 32/2003 Dekretua birplanteatzea dakar.



3. squash-eko frontoia eta gaur egungo tatami-gela hartuta, boulder berria (Uarkapekoa desagertzen da). Beste 2 squash-eko frontoiak mantentzen dira.

Tatami-gela

- Gaur egun: 13 X 14 m. = 182 m²
- Gela berria: 5 X 23 m. = 115 m²



Tatami-gela berriaren kokapena
Aireztapen-hodien birkokapena




Solairu artekoa

Judo, Aikido eta Kenpo taldeen material-gela



Egurrezko zorua duen kantxa berritzea. Gortinen sistema jartzen da espazioa erdibitu ahal izateko.



1. solairua

Pareta hau hormigoiez estaltzen da kanpoko aldean rokodromoa eraikitzen delako. Eremu hau kantxan erabiliko den materiala gordetzeko gela kokatzeko.



Frontoi txikia
Paretak iragazgaiztu beharra. Gortinen sistema jartzen da espazioa erdibitu ahal izateko.




Frontoi handia
Paretak iragazgaiztu beharra. Gortinen sistema jartzen da espazioa erdibitu ahal izateko.

Ikusleentzako harmaila kanpora ateratzen da, jokalarientzako alboko espazio zabalagoa irabazteko

UARKAPE FRONTOIA

Hau izango litzateke Uarkape berriko eraikinaren banaketa. Gaur egun dagoena baina beheko solairuan, boulderra desagertu egiten da eta gimnasioko erabiltzaileentzat 2 aldagela eraikitzen dira. 1. solairuko gela luzea eta estua (garai batean KZ gunea izandakoa eta gero K-Stretch emateko gela izan dena) talde ezberdinen materiala gordetzeko gela izango da (gimnasia erritmikoa, pilota, irristaketa, etab.). 1. solairuko aldagelak taldeentzako aldagelak izango lirateke.



Boulderra desagertu egiten da
(Antoñara lekualdatzen delako)
eta espazio honetan gimnasioko erabiltzaileentzat
2 aldagela eraikitzen dira
(6 X 11 m. bakoitzak)




Talde ezberdinetarako material-gela

Uarkape ohiko erabileraz gain (pilota partidak, pilota taldeko entrenamenduak, gimnasia erritmikoa, irristaketa, gimnasioa) espazio balioanitza aproposa da bestelako herri-ekimenak bultzatzeko erdigunean egonda: San Juan/Santamas jaietan herri bazkaria, Gabonetako haurren parkea (Txikilandia), enpresetako batzar orokorrak, hauteskudetan bozketa gunea, oposaketetan azterketa teorikoak egiteko lekua, Udalak jendaurreko prentsaurrekoak egiteko lekua (Ekobulebarra, TAO sistema, Musika eskola/Kulturola berria, ospitale berria, Arrasateko kirol-azpiegitura berriak, Plan Urbanistiko berria...), udaleku irekiak eguraldi txarrekin, etab.

ITURRIPE KIROLDEGIA

Hau izango litzateke Iturripe berriko eremuaren moldaketa.



Lorategi berria. Iturripeko kartel berriarekin


Autobusak aurrerantz sartzen dira hemen, gero atzerantz beraien aparkalekuraino joateko



2 autobusentzako aparkalekuak
Lorategiaren moldaketa




17 plaza
Berdin: baterian





12 plaza
Moldaketa: diagonalean atzeraka

Aparkaleku berriak: autoentzako 37 plaza + 2 autobusentzako aparkalekua + bizikletentzako aparkaleku berriak.
Autoentzako aparkalekuaren kudeaketa sistema: doako TAO sistema. Gehienez 3 ordu.



Gaur egungo Iturriperen orubea. Eraikina eraisten da.



Iturripe berriaren orubea



Iturripe berriko irudikapena: fatxada sinplea



Iturripe berriko barruko irudikapena
Egurrezko zorua

Entrenamenduak


Arrasaten baloiko kirolak bultzatzen dituzten talde kopurua aztertuta, honako lehentasuna proposatzen da entrenamenduetarako:

- Iturripe berria: Ointxe! Saskibaloia taldea.
- Musakolako kantxa 2 (harmailak dituen, zabalagoa dena): Arrasate eskubaloia taldea.
- Musakolako kantxa 1 (harmailarik gabekoa): Mondrate.
- Gainontzeko taldeekin ere ezin ahaztu: LEK, Arizmendi, Arrasate institutua, TAFYD, erabiltzaile arruntak.

-
- Iturripe berria, Musakolako kantxa 2: partiduetarako (harmailak dauzkate).
 - Iturripe berria, Musakolako kantxa 1,2 eta Antoñako kantxa: entrenamenduetarako.

DIMENSIONES DEL CAMPO DE JUEGO
PP-4

COTAS EN CENTÍMETROS
0 200 600




CAMPO DE JUEGO

	Anchura (m)	Longitud (m)	Superficie (m ²)
VOL	9	18	162
BLC	15	28	420
FTS-BLM	20	40	800

SUPERFICIE TOTAL

Anchura (m)	Longitud (m)	Superficie (m ²)
32	50	1.600


Barruko banaketa: beheko solairua



Sinboloen esanahia

- Kuadro elektrikoaren gela (5 X 6 m.)
Galdara gela
- Botikina (4 X 5 m.) (sarbidea kaletik)
- Elbarrien aldagela (3 X 3 m.)
- Epailen aldagela (3 X 3 m.)
- Garbitzaileen gela (2 X 8 m.)
- Aldagela (10 X 8 m.; 14 pertsonentzat bakoitza). 4 dira.
- Atea
- Konketa, ispilua, lehorgailua, apala, entxufea
- Komuna
- Dutxa
- Eserlekua eta esekitokia
- Burdinezko holtza
- Igogailua

Barruko banaketa: harmailak



Sinboloen esanahia

- Harmailetara igotzeko eskailerak (2 m. zabalera)
- Burdinezko baranda
- Elbarrien igogailua
- Komuna*
- Konketa, ispilua
- Iragarki-taula
- Vending-eko makina, solidoak
- Vending-eko makina, edari beroak
- Vending-eko makina, edari hotzak

* Trenkadak 13 mm.-ko erretxina fenolikozkoak



2 frontoien sabaia berritzea eta alboko aldea estaltzea



Estalkien eredu ezberdinak





Multikirol-pista honetarako proposatzen den estalkia




Kirol-pista ezberdinen zorua berritzea
Pista ezberdinen arteko itxitura berritzea



(Boleiboleko zelaien markak falta dira)




3 m.
↔



2 m.
↔



Iturripe berriak okupatuko lukeen orubea



Mondragon Unibertsitaterako 3 sarbideetatik 1 ezabatzen da

BESTELAKO KIROL-AZPIEGITURAK

Musakola-Antoña-Mojategi kiroldegiaz gain, Uarkape frontoiaz gain eta Iturripe kiroldegiaz gain, badaude Arrasaten bestelako kirol-azpiegiturak kontutan izan beharrekoak baita. Horregatik, guzti-guztiak berritzea eta hobetzea planteatzen denean, inbertsio-plana 3 fasetan egin ahal da: 1.a Musakolako kiroldegi berria eta Uarkape; 2.a Iturripeko kiroldegi berria; 3.a bestelako kirol-azpiegiturak. Berritzeaz batera, mantenu plangintza bat egin beharko litzateke azpiegitura horiek egoera egokian mantentzeko dagokion aurrekontua horretarako gordez. Hortaz, goazen orain jorratzera herriko bestelako kirol-azpiegituren diagnostika eta hobekuntza proposamenak, hausnarketa ariketa moduan.



1. Nagusientzako gimnasia egiteko parkea. Petankarako pista. Bestelako gimnasia ariketak egiteko parkea.



Gernika pasealekuan kokaturiko kirol-azpiegiturak



Mitarte kaleko plazatxo

2. Skate parkeak

Musakolako kiroldegikoaz gain, badaude beste 2 gune kirol hori praktikatu ahal izateko:




Euskararen Plaza



Zarugaldeko haur-parkea

3. Boulder txikia

Musakolako kiroldegikoaz gain, Maiatzaren 1a Plazan beste bat proposatzen da, aire librean:



4. Herriko plaza zabalak

Herrian zehar, auzo ezberdinetan dauden plaza zabalak aukera anitz eskaintzen dute euririk ez denean: fitness kardiobaskularra, muskulazioa, yoga, tai-chi, bestelako kirolak (hiriko dantzak, badminton, indiaka, frisbee, irristaketa...).



Musakola auzoan kokaturiko 2 plaza, adibide moduan. Badaude herrian beste hainbat.

Usaetxe plaza

5. Frontoiak

Badira herrian Musakolako, Uarkapeko eta Iturripeko frontoiez gain, beste 3:



Zaldibar



Makatzena



Gorostiza

Hau da 3etatik, premia handiena duena berrikuntzak egiteko



6. Ping-pong mahaia

Kirol modalitate hau praktikatzeko aukerarik badago Arrasaten:




Musakolako kanpoko igerilekuak
+ Antoña (mahi 1)



Zaldibarko haur-parkea



Mitarte kaleko plazatxoa



Obenerrekako haur-parkea

7. Haurren parkeak

Arrasateko auzo ezberdinek badute nahiko haur-parke ziburu ezberdinez hornituak. Mantenu-plan bat egin beharko litzateke istripuak ekiditeko eta kontserbazioan laguntzeko. Halaber, gurasoek etxean, ikastetxeetan, ludotekatan, gazte-txokotan eta kale hezitzaileek "arraunean batera" egin beharko lukete belaunaldi berriei azpiegitura publikoak zaintzearen garrantzia transmititzeko eta beraien gozamenerako direnaz jabetzeko. Euskal Herriko klima nolakoa den ezagututa, lehenetsunak markatu beharko lirateke haur-parkeak estaltzerako orduan: galdetu beharko genieke geure buruei haur-parke denak estali nahi ditugun ala zeintzuk bai eta zeintzuk ez eta zeintzuk izan beharko luketen lehenetsuna inbertsio-planean.



Gorostiza
Estalitako haur-parkeetako bat



Lezetxiki plaza
Estalirik gabeko haur-parkeetako bat

8. Ur-txorroten parkeak

Azken 2 urtetan 2 ur-txorroten parke eraiki dira Arrasaten. Haurren parkeei lotuta (eta helduentzat ere bai), planteatu beharko litzateke herriko zein puntutan komenigarria izango litzatekeen komun publikoak kokatzea.



Santa Barbara



Maalako biribilgunea

9. Bolatokia

Gure esku dago boloak bezalako kirol tradizionala berriz ere herritarrengan suspertzea. Hortaz, komenigarria da Musakolan kokaturiko bolatokia berritzea.



10. Parkour parkea

Proiektua onartuta dago Obenerrekako frontoia izandako orubean parkour parke bat eraikitzeko. Ea kirol modalitate hau praktikatzen duten zaleak laster ikusten ditugun bertan.




11. Multikirol pista

Iturripeko multikirol pistez gain, badago San Andres auzoan, Doctor Córdoba y Oro plazan beste bat.



Gaur egun

Proposatzen den itxitura eredu bat, zorua berritzeaz batera



Etorkizunean

12. Hiri-parkeak eta baso-parkeak

Arrasatek gure aisialdian paseatzeko eta korrika egiteko hainbat parke eskaintzen dizkigu, baina badute gabezi batzuk. Ea herritar guztion ekarpenekin parke txukunagoak lortzen ditugun eta denon artean zaintzen ditugun gureak diren altxor horiek.



Sagasti etxea



Norabide-panel eta marka batzuk badaude
Etxezarretako baso-parkea



Informazio-panelen falta



Bertsoak dioen moduan 1. harria jarrita soilik

Parke honetan gutxieneko elementuak falta dira: informazio-panelak (interes-guneak balioan jartzeko) eta eserleku batzuk (parkeko sarreran).



Norabide-panelez ondo hornituta galtzea galarazteko



Marka batzuk mantenu falta



Interes-gune hauetan informazio-panelen falta, balioan jartzeko



Iturri naturalez hornituta



Hidalgobasoko baso-parkea.



Arruenako hiri-parkea. Musakolako kiroldegiko proposamenean jasotzen da zein hobekuntza egin ahal zaizkion hiri-parke honi: udarako mahaia eta eserlekuak, jolastokiak, ziburuak, komun publikoak, iturria. Eskumako argazkian ikusten den moduan, oinezkoak babesteko hesi bat faltan botatzen da.



Aldaiko hiri-parkea. Berrietako bat da eta ondo hornituta dago: eserlekuak, haur-parkea, iturria. Baina komun publikoak itxita daude arazo sozial batengatik. Konponbidea bilatu beharko litzaioke arazoari baina komun publikoak berriz zabaltzea da logikoena.



Monterroneko baso-parkea

Agerikoa da berrikuntza behar duela parke honek aspaldian izandako goieneko maila berreskura dezan

Komun publiko hauek ere itxita daude



Santa Barbarako baso-parkea

Agerikoa da mantenua eskatzen duela parke honek aspaldian izandako goieneko maila berreskura dezan.

Honekin batera, lehen aipatu dudan moduan, gurasoek etxean, ikastetxeetan, ludotekatan, gazte-txokotan eta kale hezitzaileek “arraunean batera” egin beharko lukete belaunaldi berriei azpiegitura publikoak zaintzearen garrantzia transmititzeko eta beraien (eta guztion) gozamenarako direnaz jabetzeko



Olandixo



Polo Garaia




Alfontso X Jakintsua plaza

Deigarria da aldapatsuak diren 2 hiri-parke hauetan zakarrontziak egotea bai, baina eserlekurik ez.

Hiri-parke txiki itxura duen plaza hau berritzea eskatzen ari da dotoreagoa gera dadin

San Balerio baso-parkea (Meatzerreka auzoa). Auzo honetan bidezidorzaletasuna bultzatzen da. Horretarako 2 ibilbideren markak daude margotuta. Basotik eta landa inguruetik igarotzen diren bidezidor horietan iturriak, eserlekuak eta informazio-panelak dauzkagu kirolariaren mesederako. San Balerio baso-parkea oso aproposa da ingurumen-heziketa lantzeko.





Informazio-panel batzuek mantenua edo berritzea eskatzen dute

Argiztapena, iturria eta eserlekua Bizkaia etorbidean

Arrasatera sartzeko eta Arrasatetik irteteko seinaleztapenak itxura zatarra ematen dio herriko irudiari (Bizkaia etorbidea)

13. Bidegorria



Gernika pasealekuko hiri-altzariak erreparatzea komenigarria izango litzateke Bidegorria zoruaz markatzea izango litzateke beste neurrietako bat



Bidegorria etenda (Kurtze Txiki Pza.)

Alegala ≠ Ilegala (Etxaluze)

Bidegorri txukuna (Gipuzkoa etor.)

Herri barruko bidegorri sare eza

Herri barruan bidegorri sarea ez egoteak ez du ahalbidetzen herritarren mugikortasuna bizikletaz edo Erabilera Pertsonalerako Ibilgailuetan (patinete elektrikoak, esaterako) egitera modu seguruan. Honetaz gain, mugikortasunerako udal ordenantza eguneratu beharra dago DGT (Dirección General de Tráfico)-ko azken berrikuntzetara egokitzeko. Oraindik urrun gaude Arrasate bizikletentzako eta Erabilera Pertsonalerako Ibilgailuentzako herri eroso eta segurua ikusteko, nahiz eta ildo horretan pausuak ematen ari diren. Bidegorria autoen trafikotik bananduta egiteko espaziorik ez dagoenean, goiko argazkian ikusten den formula bezalakoak (bidegorria galtzadaren erdian margotu eta galtzadaren gehienezko abiadura murriztu 20/30 km./orduko abiadurara) erabiltzen dira autoaz haratago, bestelako mugikortasuna bultzatzeko. Bidegorri sarea osatzeaz bat, mugikortasun berrira egokitzeko hezkuntza kanpaina serioa zabaldu beharko litzateke herritar orengan, pertsona guztiek dugun behar bat baita: alde batetik bestera mugitzea. Eta Bizikleta arruntaz mugitzea (ez elektrikoak) kirola egitea bada.



“Vasco-navarro” trenbidearen bidegorria

Deigarria da kartel berri batzuk jarrita bidegorria eginda geratzea, inongo egokitzapenik gabe.



Herrien arteko bidegorriaren seinaleztapena eta mantenua Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena bada ere, argazkietan ikusten den moduan, deigarria da San Prudentziorako noranzkoan oinezkoek eskumako aldetik hastea oinez, Errekabaltzeko tunelean oinezkoen alderdirik markatuta ez egotea eta tuneletik irtenda, oinezkoek ezkerreko aldera pasatu behar izatea, horrek izan ditzakeen nahasteekin eta bizikleten gidarientzat arrisku bilakatzea. Bide bazterraren mantenu falta ere agerikoa da. Bizikleten erre bat galduta dago.



Ezkerreko argazkiko irudiak ekiditeko ezinbestekoa da bidegorriko puntu konkretu batzuetan komun publikoren bat kokatzea. Horregatik jendearen aldarrikapen umoretsua, jendeak ez baitaki burokraziaz, ekintzak ikusi nahi ditu (ez daki San Prudentzion kokatu nahi bada komun publikoa Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko Udalek parte hartu behar dutela).



Deigarria da errepidea zeharkatzeko *Fagor* ondoko puntu honetan oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea bitan zatituta egotea eta lerrokatuta ez egotea.

AUZOAK

Orain aztertuko dira Arrasateko hirigunetik aldentuta dauden auzoen kirol-azpiegiturak, auzoak ere Arrasate baitira:

1. Bedoña



Bedoñarako bidean dauden eserlekuen egoera eskasa
Herritarrak paseoan igotzen eta jaisten dira errepidetik



Frontoia



Haur-parke honek beste elementuren bat eskatzen du



Iturritz, eserlekuz eta zakarrontziz hornituta parketxoa



Bidezidor eta mendizaleentzat seinaleztapen egokia, nahiz eta informazio-panel batzuk berritzea eskatzen duten

2. Udala



Ingurugiro eskolan frontoi berritua eta haur-parkea kokatzen dira. Eserlekuen egoera eskasa.



Uxarte jatetxearen ondoko plazatxoan haur-parkean beste elementuren bat faltan botatzen da. Ondo hornituta eserlekuekin, mahaiekin, iturriarekin eta zakarrontziekin.



Bidezidor eta mendizaleentzat seinaleztapen egokia

3. Garagartza





Haur-parke berria
(eserlekuz, iturritz eta zakarontziz hornituta)



Agerikoa da haur-parke honen
mantenu falta



Futbol zelai honetarako
itxitura proposatzen da,
baloia errepidera edo errekarara
joan ez dadin



Eredua (kanastarik gabe)


4. Gesalibar



Haur-parke berria



Eserlekuek mantenua eskatzen dute



Bidezidor eta mendizaleentzat
seinaleztapen egokia,
nahiz eta informazio-panel
batzuk berritzea eskatzen duten

Ikusten den moduan, Arrasateko herrigunetik aldentuta dauden auzoek ume txikien kirol beharrei erantzuten diete haur-parkeen bitartez. Beti ere ziburuek, eserlekuek, zakarontziek, iturriek, informazio-panelek eta bidezidorzaleentzako norabide-markek mantenua eskatzen dute kirol-azpiegiturak goera egokian egon daitezzen.

INGURUNE NATURALA

Orain aztertuko ditugu ingurune naturalari lotutako hainbat kontu:

1. Mendia: mendiz inguratuta gaude Arrasaten. Hortaz, ez da harritzekoa mendiari lotutako kirol ezberdinek bultzada handia izatea herritarrengan. Baina Arrasateko mendiak herritarren “kirol-azpiegitura” erraldoiak izango balira bezala ulertu behar dira eta komenigarria izango litzateke kirol ezberdinak erregulatzea praktika onen dekalogo moduko batekin edo antzerako formularen bat ingurune natural berbera konpartitzen duten kirolari ezberdinen elkarbizitzarako eta ingurunearen errespeturako.



Bidezidor eta mendizaleek informazio-panel ugari eta ibilbide ezberdinen markak dauzkate herrian zehar eta herriko ibilbideetan zehar kirol hau modu seguruan praktikatzeko. Gogorarazi behar da azpiegitura horrek mantenua eskatzen duela egoera egokian mantentzeko



Garagartzako ingurune naturalean, Akisoalde zelaian, garai batean errugby-an jolasteko erabiltzen zena, leku aproposa izan daiteke mini-golf eskola muntatzeko, arkularientzat edo plater-tiroa praktikatzeko (azken modalitate hau praktikatzeko ere Kurtzetako mendatean badago atondutako leku bat)

ARRASATEKO KIROL -AZPIEGITUREN MAPA

MUSAKOLAKO KIROLDEGIA

- Frontoiak: pilotako kirolak.
- Tenis, padel pistak.
- Kantxak: baloiko kirolak.
- Atletismoko pista.
- Futbol, errubgy, softbol zelaiak.
- Luzera-jauziak egiteko pista.
- Pertika-jauzia egiteko pista.
- Igerilekua: uretako kirolak.
- Gimnasioa: fitness kardiobaskularra, muskulazioa.
- Gimnasiarako aretoak: zunba, spinning, yoga, body balance, k-strech, body pump, pilates, judo, kenpo, aikido, etab.
- Boulderra, rokodromoa: eskalada.
- Skate-erako parkea.
 - Ping-pong-eko mahaiaik.
 - Badmintoneko zelaiak
 - Jolas librerako eremuak

UARCAPE FRONTOIA

- Frontoiak: pilotako kirolak. Gimnasia erritmikoa, irristaketa.
- Gimnasioa: fitness kardiobaskularra, Muskulazioa.

ITURRIPEKO KIROLDEGIA

- Frontoiak: pilotako kirolak. Irriaketa.
- Tenis, padel pista.
- Kantxak: baloiko kirolak.
- Atletismoko pista.
- Luzera-jauziak egiteko pista.
- Gimnasioa: gimnasiako ariketa ezberdinak egiteko parkea.



Herri barruko
bidegorri-sarea



Azken
aukera
mugitzeko

BESTELAKO KIROL-AZPIEGITURAK

- Gimnasia egiteko parkeak. Petankarako pista.
- Skate-erako parkeak.
- Boulder txikia: eskalada (Maiatzaren 1 plaza).
- Plaza zabalak: fitness kardiobaskularra, muskulazioa, yoga, tai-chi, bestelako kirolak (hiriko dantzak, badminton, indiaka, frisbee...).
- Frontoiak: Zaldibarko frontoia (/futbito zelaia), Makatzena, Gorostiza.
- Ping-pong mahaiaik.
- Hurren parkeak. Ur-txorroten parkeak.
- Bolatokia (Musakola).
- Parkour parkea (Obenerreka).
- Multikirol pista: Dr. Córdoba y Oro plaza.
- Hiri-parkeak.
- Bidegorria: oinez ibiltzea, korrika egitea, txirrindularitza, patineta, irristaketa.
 - Herrigunetik aldentutako auzoak.

INGURUNE NATURALA

- Mendia: bidezidor zaletasuna, mendizaletasuna, eskalada, espeleologia, eskia, snowboard, mendi-lasterketa, orientazioa, btt-a, zaldia, ehiza, etab.
- Ur-ingurunea (errekak, Urkulu): arrantza, piragüismoa, padel-surf, parapentea, kometak.
- Errepidea, Urkulu: txirrindularitza, auto-lasterketa.
- Garagartzako zelaia (Akisoalde): mini golf-eskola, plater-tiroa, arku-tiroa.

Mapa osatuaz batera eta azpiegitura guztiak eraikita eta ongi mantenduta, eragile sozial ezberdinekin lanean hasi beharra dago abandonatutako azpiegiturak izan ez daitezten, baizik eta herritarrez bete daitezten, biztanleri osasuntsuagoa eta zoriontsuagoa lor dezagun, giza-harreman gatazkatsuetatik at, giza-balore sendoz eraikitako gizartea izan dadin, kirola mugimenduan oinarritutako ekintza soilik ez baita, zentzu puruaz haratago, kirola erreminta boteretsua baita osasuntsuago (fisikoki eta psikikoki) eta zoriontsuago bizitzeko, giza-baloreak lantzeko, gizartean bazterturik dauden pertsonak gizarteratzeko... Kirol-azpiegiturak eta atondutako espazio egokiak + kirol-politika indartsua = Herri kirolaria. Hala bedi!

